Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko irailaren 14a, ostirala — 178 — Viernes, a 14 de septiembre de 2018



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*02-124/2018 Foru Agindua, abuztuaren 29koa, Gipuzkoako toki erakundeei diru laguntzak emateko 2018ko deialdia ebazten duena, Gipuzkoako herritarrei zuzendutako jarduera fisikoa sustatzeko tokiko programak garatzeko (Kirol arloko diru laguntzak: A.4 eranskina).*

Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:

2018ko apirilaren 17ko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakiaren bitartez onetsi ziren alde batetik kirol arloko diru laguntzak emateko oinarri orokorrak eta espezifikoak, eta bestetik, diru laguntza lerro bakoitzaren 2018. ekitaldiko deialdia. Aipatutako laguntzen artean, Gipuzkoako toki erakundeei zuzendutako diru laguntzak daude, Gipuzkoako herritarrei zuzendutako jarduera fisikoa sustatzeko tokiko programak garatzeko, eta horien emakida A.4 eranskinean jasotako oinarrietan arautzen da.

Diru laguntza horiek arautzen dituzten oinarri orokorreko 9.2 puntuan ezartzen denez, eskaerak Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aztertuko dituzte, eta balorazio txostena egingo dute. Txosten hori Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztutakoak aztertu ditu Kirol Zerbitzuak eta txosten bat prestatu du eskaeren xedea diru laguntzak eman eta kopuruak zehazteko irizpideekin bat datorrela egiaztatuz.

Txosten hori lehen aipatutako ebaluazio batzordearen irizpenera jarri da eta Batzordeak 2018ko uztailaren 23ko bileran bere egin du. Ondoren, diru laguntza horiek emateko prozeduraren ebazpen proposamena igorri dio Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuari.

Kirol Zerbitzuak egindako txostenean eta horren ondorioz emandako eta foru agindu honetan jasotako ebazpen proposamenean zenbait eskaera ezetsi egiten dira arrazoi ezberdinengatik. Eskaera horiek eta ezesteko arrazoiak foru agindu honekin batera doan 2. eranskinean jasota daude.

10.2 oinarri orokorrak eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO, JUVENTUD Y DEPORTES

*Orden Foral 02-124/2018, de 29 de agosto, por la que se resuelve la convocatoria 2018 de las subvenciones destinadas a las entidades locales guipuzcoanas, para el desarrollo de programas locales de fomento de la actividad física dirigida a la población guipuzcoana (Subvenciones en materia de deportes: anexo A.4).*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 17 de abril de 2018, se aprobaron las bases reguladoras generales y específicas del otorgamiento de subvenciones en materia de deportes, así como la convocatoria correspondiente al ejercicio 2018 de las distintas líneas de subvenciones. Entre dichas ayudas se encuentran las destinadas a las entidades locales guipuzcoanas para el desarrollo de programas locales de fomento de la actividad física dirigidos a la población guipuzcoana, cuya concesión regulan las bases recogidas en el anexo A.4 de los que acompañan al citado acuerdo.

La base general 9.ª2 reguladora de estas subvenciones establece que las solicitudes correspondientes serán analizadas por el personal técnico de la Dirección General de Juventud y Deportes, quien elaborará un informe de valoración que será sometido a la Comisión Evaluadora que se constituya, la cual, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y la elevará al órgano competente para su aprobación.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, y analizadas por el Servicio de Deportes las presentadas, dicho servicio ha emitido un informe en el que contrasta el objeto de las solicitudes con los criterios de concesión y cuantificación de estas subvenciones.

Este informe ha sido sometido a la Comisión Evaluadora a la que se ha hecho mención anteriormente, la cual, reunida el día 23 de julio de 2018, haciendo suyo el citado informe, ha elevado propuesta de resolución del procedimiento de concesión de estas subvenciones a este diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes.

El informe del Servicio de Deportes y la propuesta de resolución que del mismo se deriva y se traslada a esta orden foral contemplan, asimismo, la desestimación de una serie de solicitudes por diversos motivos, solicitudes y motivos de desestimación que se recogen en el anexo 2 de los que acompañan a la presente orden foral.

De conformidad con lo dispuesto en la base general reguladora 10.ª2 y en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

EK\CV GAO-I-2018-06140

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da diru laguntzei publizitatea emateko obligazioa, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritakoa.

Beste aldetik, diru laguntza horien 5. oinarri espezifikoan ezarritakoari jarraituz, emandako zenbatekoaren % 50rainokoa ordaintzen da.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Ematea foru agindu honen 1. eranskinean jasotako taulan jasotzen diren Gipuzkoako toki erakundeei bertan adierazitako diru laguntzak, Gipuzkoako herritarrei zuzendutako jarduera fisikoa sustatzeko tokiko programak garatzeko. (Gipuzkoako toki erakundeei zuzendutako diru laguntzak: A.4. eranskina).

*Bigarren.* Xedatzea dagokion gastua –guztira 54.999,85 euro– A 2672-005 2018 kontabilitate erreferentziaren kargura.

*Hirugarren.* Ordaintzea foru agindu honekin batera doan 1. eranskineko taulan zerrendatzen diren entitateei, kasu bakoitzean dagokion zenbatekoa.

Gainerakoa ordainduko da diru laguntzen 13. oinarri orokorrean ezarritako edukia duen azken kirol denboraldiko kontu zurigarria aurkeztu eta gero, beti ere 2018ko urriaren 31 baino lehen aurkeztuta.

Jardueren programak eta urte naturalak bat egiten dutelako aipatutako eperako justifikazioko kontua aurkeztu ezin duten entitateen kasuan, behin-behineko justifikazioko kontua aurkeztu behar dute egun hori baino lehen eta, halaber, denboraldia amaitu bezain pronto eta, nolanahi ere, 2019ko urtarrilaren 31 baino lehen, justifikazioko kontua aurkezteko konpromisoa hartuko dute.

*Laugarren.* Ezestea foru agindu honen 2. eranskinean jasotako diru laguntza eskaerak, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

*Bosgarren.* Agintzea foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2018ko abuztuaren 29a.—Ana Urkola Aranburu, idazkari teknikoa. (6140)

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Finalmente, de acuerdo con lo establecido en la base específica 5.ª de las reguladoras del otorgamiento de estas subvenciones, se abona hasta el 50 % de la cantidad concedida.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes,

RESUELVE

*Primero.* Conceder a las entidades locales guipuzcoanas que se relacionan en el cuadro que se acompaña a la presente orden foral como anexo 1, las subvenciones que aparecen en dicho cuadro, para el desarrollo de programas locales de fomento de la actividad física dirigidos a la población guipuzcoana. (Subvenciones en materia de deportes destinadas a las entidades locales guipuzcoanas: anexo A.4).

*Segundo.* Disponer el gasto correspondiente –por importe total de 54.999,85 euros–, con cargo a la referencia contable A 2672-005 2018.

*Tercero.* Abonar a las entidades que se relacionan en el cuadro que se acompaña a la presente orden foral como anexo 1, las cantidades que en cada caso corresponda.

El importe restante será abonado a la presentación, antes del 31 de octubre de 2018, de la cuenta justificativa de la última temporada deportiva, con el contenido determinado en la base general 13.ª de las reguladoras de las ayudas.

En el caso de entidades que no puedan presentar tal cuenta justificativa en la fecha indicada por ser su programa de actividades coincidente con el año natural, deberán presentar antes de esa fecha una cuenta justificativa provisional además de un compromiso de presentar las cuentas definitivas una vez finalizada la temporada y con anterioridad en todo caso al 31 de enero de 2019.

*Cuarto.* Desestimar las solicitudes de subvención que figuran en el anexo 2 de los que acompañan a la presente orden foral, por las razones que en ese mismo anexo se señalan.

*Quinto.* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 29 de agosto de 2018.—La secretaria técnica, Ana Urkola Aranburu. (6140)

EK\CV GAO-I-2018-06140

Gipuzkoako toki erakundeei zuzendutako kirol arloko diru laguntzak: Gipuzkoako herritarrei zuzendutako jarduera fisikoa sustatzeko tokiko programak garatzea (A.4 eranskina).
Subvenciones en materia de deportes destinadas a las entidades locales guipuzcoanas: Desarrollo de programas locales de fomento de la actividad física dirigidos a la población guipuzcoana (anexo A.4).

1. ERANSKINA (Onartutako eskaerak) / ANEXO 1 (Solicitudes estimadas)

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Erakunde onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *a) programa* | *b) programa* | *c) programa* | *d) programa* | *Diru laguntza guztira*<br>*Subvención total* | *1. ordainketa*<br>*1er. abono* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2018-ELF4-000001-01 | Mutrikuko Udala | | | 198,08 | | 198,08 | 99,04 |
| 2018-ELF4-000002-01 | Mutrikuko Udala | | | | 169,79 | 169,79 | 84,90 |
| 2018-ELF4-000003-01 | Zestoako Udala | | | 679,14 | | 679,14 | 339,57 |
| 2018-ELF4-000004-01 | Zestoako Udala | | 594,25 | | | 594,25 | 297,13 |
| 2018-ELF4-000005-01 | Astigarragako Udala | | | 396,17 | | 396,17 | 198,09 |
| 2018-ELF4-000006-01 | Majori Kiroldegia SL | | | 707,44 | | 707,44 | 353,72 |
| 2018-ELF4-000007-01 | Elgoibarko Udal Kirol Patronatua | 2.000,00 | | 877,22 | 424,46 | 3.301,68 | 1.650,84 |
| 2018-ELF4-000008-01 | Debako Udala | | | 622,55 | 1.047,01 | 1.669,56 | 834,79 |
| 2018-ELF4-000009-01 | Hondarribiko Udala | 2.000,00 | | | | 2.000,00 | 1.000,00 |
| 2018-ELF4-000010-01 | Orioko Udala | | | 594,25 | | 594,25 | 297,13 |
| 2018-ELF4-000011-01 | Tolosako Udala | | | 1.301,69 | | 1.301,69 | 650,85 |
| 2018-ELF4-000012-01 | Asteasuko Udala | | | 254,68 | 169,79 | 424,47 | 212,24 |
| 2018-ELF4-000014-01 | Urnietako Udala | | | 962,12 | | 962,12 | 481,06 |
| 2018-ELF4-000015-01 | Oiartzungo Udala | 2.000,00 | | 339,57 | | 2.339,57 | 1.169,79 |
| 2018-ELF4-000016-01 | Hondarribiko Udala | 0,00 | | 311,27 | | 311,27 | 155,64 |
| 2018-ELF4-000017-01 | Itsasondoko Udala | | | 396,17 | | 396,17 | 198,09 |
| 2018-ELF4-000018-01 | Legazpiko Udala | | | 367,87 | | 367,87 | 183,94 |
| 2018-ELF4-000019-01 | Zumarragako Udala | | | 565,95 | 0,00 | 565,95 | 282,98 |
| 2018-ELF4-000020-01 | Azpeitiko Udala | 2.000,00 | | 537,65 | | 2.537,65 | 1.268,83 |
| 2018-ELF4-000021-01 | Hernaniko Udala | | | 565,95 | 0,00 | 565,95 | 282,98 |
| 2018-ELF4-000022-01 | Patronato Municipal de Deportes Donostia | 2.000,00 | | | | 2.000,00 | 1.000,00 |
| 2018-ELF4-000023-01 | Patronato Municipal de Deportes Donostia | | | 1.301,69 | | 1.301,69 | 650,85 |
| 2018-ELF4-000024-01 | Zarauzko Udala | 2.000,00 | 1.018,71 | 1.047,01 | 905,52 | 4.971,24 | 2.485,63 |
| 2018-ELF4-000025-01 | Bergarako Udala | 2.000,00 | | | | 2.000,00 | 1.000,00 |
| 2018-ELF4-000026-01 | Usurbilgo Udala | | 0,00 | 537,65 | | 537,65 | 268,83 |
| 2018-ELF4-000027-01 | Zumaiako Kirol Patronatua | 1.500,00 | | 1.103,60 | | 2.603,60 | 1.301,80 |
| 2018-ELF4-000028-01 | Itsasoko Udala | | | 367,87 | | 367,87 | 183,94 |
| 2018-ELF4-000029-01 | Itsasoko Udala | | | | 367,87 | 367,87 | 183,94 |
| 2018-ELF4-000030-01 | Eibarko Kiroletako Udal Patronatua | 1.080,00 | | 0,00 | 0,00 | 1.080,00 | 540,00 |
| 2018-ELF4-000031-01 | Beasaingo Udala | 2.000,00 | | 1.386,58 | | 3.386,58 | 1.693,29 |
| 2018-ELF4-000032-01 | Urretxuko Udala | 0,00 | | 424,46 | 650,84 | 1.075,30 | 537,65 |
| 2018-ELF4-000034-01 | Aretxabaletako Udala | 2.000,00 | 1.669,55 | 1.103,60 | 990,41 | 5.763,56 | 2.881,79 |
| 2018-ELF4-000035-01 | Pasaiako Udala | 2.000,00 | 735,74 | 1.216,79 | 650,84 | 4.603,37 | 2.301,69 |
| 2018-ELF4-000036-01 | Irungo Udala | | | 339,57 | 1.103,60 | 1.443,17 | 721,59 |

EK\CV GAO-I-2018-06140

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Erakunde onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *a) programa* | *b) programa* | *c) programa* | *d) programa* | *Diru laguntza guztira*<br>*Subvención total* | *1. ordainketa*<br>*1er. abono* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2018-ELF4-000037-01 | Arrasateko Udala | | 84,89 | 169,79 | 169,79 | 424,47 | 212,25 |
| 2018-ELF4-000038-01 | Albizturko Udala | | | | 198,08 | 198,08 | 99,04 |
| 2018-ELF4-000039-01 | Lezoko Udala | 2.000,00 | | 792,33 | | 2.792,33 | 1.396,17 |
| | Guztira/total | 24.580,00 | 4.103,14 | 19.468,71 | 6.848,00 | 54.999,85 | 27.500,07 |

2. ERANSKINA (Ezetsitako eskaerak) / ANEXO 2 (Solicitudes desestimadas)

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Eskatzailea*<br>*Solicitante* | *Arrazoia*<br>*Motivo* |
|---|---|---|
| 2018-ELF4-000013-01 | Deba Goieneko Mankomunitatea | 1 |
| 2018-ELF4-000033-01 | Majori Kiroldegia SL | 2 |

*Ezesteko arrazoia*

1.- Proiektuaren helburua (PUNTAIK PUNTA, Debagoieneko senderismo jaialdia) ez dator bat diru laguntza hauen xedearekin (1. oinarri espezifikoa).

2.- Ez ditu betetzen 4.2. oinarri espezifikoan xedatutako baldintzak: "Jarduera protokoloak Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako KOZ-Gipuzkoa eredua jarraitu beharko du".

*Motivo de denegación*

1.- El fin del proyecto (PUNTAIK PUNTA, Debagoieneko senderismo jaialdia) no se ajusta al objeto de estas subvenciones (base específica 1ª).

2.- No cumple las condiciones establecidas en la base específica 4.2: "El protocolo de actuación será conforme al modelo KOZ-Gipuzkoa aprobado por la Diputación Foral de Gipuzkoa".

EK\CV GAO-I-2018-06140